

# BERMEO-SAN FRANTZISKO ESKOLA PUBLIKOAREN

## BIZIKIDETZA PLANA



Atalde kalea z

Tel: 946880477

Faxa:946029926

E-mail: [014923aa@hezkuntza.net](mailto:014923aa@hezkuntza.net)

<http://www.bermeosanfrantzisko.org>

# AURKIBIDEA

0.-Sarrera

1-Ikastetxeko elkarbizitza: marko teorikoa

2.-Ildo nagusiak: elkarbizitza eta gure hezkuntza proiektu globala.

3-Faseak:

- 3.1.-Sentsibilizazio fasea
  - 3.1.1.-Definizioa
- 3.2.-Diagnostiko fasea:
  - 3.2.1.- Gure indar-guneak
  - 3.2.2.- Gure ahuleziak
  - 3.2.3.- Helburuak
- 3.3.-Planaren jarduerak zikloka eta orokorrean
- 3.4.-Jarraipena eta ebaluazioa

## 0.-SARRERA

Bizikidetza Plana osatzeak energia, baliabideak, sormena eta denbora eskatzen ditu, baita entrenamendua eta planifikazioa ere. Zentroko bizitzarako alde garrantzitsuei buruzko hausnarketa egiteko eta hezkuntza-komunitateko kolektibo bakoitzaren pentsaerak, beharrak eta itxaropenak bateratzeko, denbora asko inbertitu da.

Plan hori aurrera eramateko oinarrizko 4 fase proposatu dira:

- 1.-**Sentsibilizazioa:** bizikidetza positiboa sustatzeko beharrei buruz. Hizkuntza bateratuaren bilaketa.
- 2.-**Diagnostikoa:** elkarbizitzarako garrantzizkoak diren eremu guztietako diagnosia. Errealitatea aztertu, ondo dabilzan alderdiak, zailtasunak eta sakoneko arazoak identifikatu.
- 3.-**Planifikazioa:** Elkarbizitza Planaren planifikazioa. Elkarbizitza positiboaren eraikuntza, gatazken aurreikuspena eta beren tratamendua landuko duen interbentzio programa. Urteko Planak diseinatzerakoan kontutan izango da eta bere pisua izango du elkarbizitza planak.???
- 4.-**Jarraipena eta ebaluazioa:** Hiruhilabetean behin jarraipena egingo da urtero eta kurtsu bukaeran memorieta planaren jardueren ebaluazioa adieraziko da.

# 1.-IKASTETXEKO ELKARBIZITZA

## **Eskolako Elkarbizitza. Marko teorikoa.**

Gizartea aldatu egin da eta horrekin aldaketak etorri dira eskoletako xede eta helburuetara ere. Bizitzeko behar diren oinarrizko kompetentziak eta gaitasunak garatzea da orain helburu nagusia.

Eskolako elkarbizitzak garrantzi handia du eskola komunitatea osatzen dugun partaide guztiengan, eta batez ere ikasleengan. Adituen eta ikerketa gehienetan azaltzen den moduan elkarbizitza on eta armoniatsuak eragin zuzena du ikasleen garapen pertsonalean eta baita ere emaitza akademikoetan.

Hori dela eta, Euskal Hezkuntza Sistemak azken lau urteetan, ikasturte hau azkena izanik, hainbat jarduera, prestakuntza eta ekimen ipini ditu martxan ikastetxeetako elkarbizitza sustatzeko eta herritartasunerako hezkuntza bultzatzeko. Hortik, ikastetxe guztiek beraien Bizikidetzaren Plana izan behar dute eginda ikasturte honetarako. Beraz, egun Euskal Hezkuntza Sistemak bizikidetzarako eta herritartasun demokratiko, aktibo eta arduratsu baterako hezkuntzaren alde egiten du. Hainbat balioetatik abiatuta hezi behar da (justiziatik, tolerantziatik, errespetutik edo elkartasunetik abiatuta) eta ikasleengan beharrezkoak diren gaitasunak garatu behar ditu, arazoak eta gatazkak konpontzeko gaitasuna sortuta, bakoitzak bere buruarekin eta gainerakoekin harreman positiboak izateko, erabakiak hartzeko, zentzu kritikoarekin jokatzeko eta ingurunea era sortzailean eraldatzeko.

Elkarbizitzarako plangintzetan ezinbestekoa da eskolako bizikidetzaren hobekuntzarako hezkuntza komunitatearen partaidetza ahalbideratzea (partaide guztiena: ikasle, guraso, irakasle eta zerbitzuetako langileak). Era honetara, eskola komunitateko estamentu guztien inplikazioa eta partehartzea bultzatzen da, eskolaren prozedurak irekiak direla aurkezten /demostratzen zaio eskola komunitateari, denon partaidetza eta protagonismoa ezinbestekoak direla egiaztatuz praktikarekin. Azken baten, eskolako estamentu guztien arteko kidetasuna sendotu nahi da bizikidetzaren plan honekin.

Araudia kontutuan harturik, hainbat dokumentuetan agertzen dira elkarbizitza baketsurako gomendioak, hain zuzen ere 1993ko Otsailaren 19ko Euskal Eskola Publikoaren legean edota LOEn oinarritutako EAEko

Derrigorrezko Hezkuntzaren Curriculum dekretuan. **Oinarrizko konpetentzien** alorrean ondoko aipamen hauek azpimarra ditzakegu:

- **“Elkarrekin bizitzen ikastea”** : *hartu eman positiboak izateko eta gatazka egoeretan elkarriketara eta negoziara jotzen ikasteko. Halaber, gogoz eta demokratikoki parte hartzen ikastea, lankidetzan jarduten eta taldean lan egiten ikastea, eta aniztasuna errespetatzea, elkartasun jarduerak erakutsiz.*
- **“Pertsona giza garatzen ikastea”** : *norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.*
- **“Gizarte eta hiritar konpetentzia”** : *konpetentzia honek barne hartzen ditu zenbait gizarte trebetasun, aukera ematen dutenak balioetan eta interesen gatazkak elkarbizitzaren parte direla jakiteko, gatazka horiek jarrera eraikitzailez konpontzeko eta erabakiak autonomiaz hartzeko.*
- **“Norberaren autonomiarako eta ekimenerako konpetentzia”** : *konpetentzia honen garapenak, sarri, beste pertsona batzuen parte hartzea eskatzen duenez, harremanetarako, lankidetzarako eta talde lanerako gizarte trebetasunak izatea eskatzen du.*

Konpetentzia hauez gain 2005eko Otsailaren 18ko **“emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeak”** eskola curriculumari egindako zehaztapenak:

*“Hezkuntza administrazioak oinarrizko printzipiotzat ezarriko du hezkuntza maila guztietan indarkeriazko joerak prebenitzea, eta eguneroko bizitzari buruzko eduki eta aldi zehatzak ezarriko ditu hezkuntza maila guztietan”*

Eta bukatzeko, **Ikasleen Eskubide eta Betebeharrei** buruzko apirilaren 19ko dekretuan azaltzen diren eskubideen artean ondoko hau irakur dezakegu:

*“...bere osasun fisiko, psikiko eta morala eta beren duintasun pertsonala errespetatuak izateko eskubidea dute ikasle guztiek eta inola ere ezingo zaie tratu laidogarri edo degradatzailek eman ez eta tratu txar fisiko eta morala duten zigorrik eman ere.”*

## 2.-GURE HEZKUNTZA PROIEKTUA ETA ELKARBIZITZA: ILDO NAGUSIAK

Diagnostikotik atera dugu eskolako elkarbizitza positiboa bideratuko dituzten funtsezko oinarri batzuk daudela, garrantzitsuenak honako hauek izanik:

1.-**Elkarbizitza atseginak eta emaitza akademiko egokiak bat egiten dute.**Gure ikasleen garapen globala erraztea da gure muina, bere interesak eta jakin-minak abiapuntuz hartuta. Ikasleek duten ahalmenei etekin handiena ateratzea, eguneroko egoeren aurrean irtenbide positibo eta eraikitzaileak aurkitzen saiatuz. Ikasleak bizitzarako eta ikasketetarako behar dituen konpetentziak garatzea egoera erreal eta praktikoetan oinarrituta.

2.-Eskola porrota jasaten duten ikasleek nekez aurkitzen dute zentzurik eskolan egoteari. Ondorioz, ez da arraroa ikasle hauen portaerak, tamalez, mingarriak izatea. Egoera honi erantzuna emateko, **eskola porrota gainditzeko**, gure hezkuntza proiektua den Amara Berri proiektu globala sendotuko dugu eta bere oinarri pedagogikoak kontutan izango ditugu.

3.-Eskolako elkarbizitza eta eskolak duen barne antolaketa, kudeaketa eta funtzionamendua elkar lotzen dira. Horretarako kontutan izango dugu gure hezkuntza proiektua, zein den gure **eskolaren identitatea**, gure helmuga eta helburuak. *“Eskola euskalduna, publikoa berritzailea eta konpentsatzailea gara. Publikoa den heinean ideologikoki anitza eta konpentsatzailea izango da. Euskalduna izanik, ikasleak euskalduntzeaz gain euskararen normalizazioa bilatzen du.”*

Ikastetxearen egunerokotasunarekin zerikusia duten hainbat alderdik elkarbizitza bultzatu edota, alderantziz, elkarbizitza oztopa ditzakete.

4.-Eskola eragileen partaidetzak, jolas tokien kudeaketak, jantokiko orduen antolaketa eta abar eragin zuzena izango dute ikasleen harremanetan. Hau dela eta, beharrezkoa ikusten da toki eta esparru guzti hauek ondo araututa izatea arazoak ematen direnean adosturiko aldaketak gauzatzeko.

5.-Eskolako elkarbizitzak bat egin behar du **oinarrizko balio eta etikarekin**. Honetarako, eta eskola osatzen dugun pertsona guztien pentsaera, sinesmen eta portaerak errespetatu eta aintzat hartzeko **“Giza Eskubide Unibertsalak** izango dira erreferente nagusiak. Honela,

berdintasunean oinarrituz, ikasle, familia zein kultura arteko aniztasun eta diferentziak bultzatuko ditugu.

6.-**Eskolako arautegia** senide, ikasle, irakasle eta eskolako beste eragile batzuen artean landu behar da. Arautegi orokorra, kurtso hasieran ematen dena, beste arautegi zehatz batzuekin osatzen da: jantokikoa, AE21, gelakoa, jolastordukoa.

Arauk haustu edota gatazkak sortzen direnean konponbideak komunitate guztien partaidetzarekin konpontzen dira orientabide orokor hauek kontutan izanda:

-Arau haustea edo gatazka handia ez denean tutore eta ikasleen artean konponduko da.

-Arauaren hausketa edo gatazka berriz gertatzen denean elkarbizitzako batzordea bilduko da. Batzorde honek senideei jakitun egiten die eta guztien artean konpontzen da.

#### 7.- ***Berdinen arteko tratu txarrak ematen direnean***

Arau hausteak eta gatazka arruntak tratu txar edo bullying-etik desberdintzea komenigarria da. Azken kasu honetan egoera larritu egiten da eta erantzuna ere bizkorragoa eta zuzenagoa izan behar da. Horretarako Elkarbizitzako batzordeak konponbiderako beharrezkoak diren neurriak hartu ondoren ezer lortzen ez badu, Hezkuntza Sailak 2007an argitara emandako “*Ikastetxeetan Berdinen Arteko Tratu Txarrak Gertatzen Direnean Jarduteko Gida*” erabiliz bertan azaltzen den protokoloa bete eta jarraituko du.

### **3.-ESKOLAKO ELKARBIZITZAREN FASEAK (2011-2012 ikasturtea):**

Gure bizikidetza plan propioa eratzea eta martxan jartzea funtsezko pausu bat da. Urteko Bizikidetza Plana eratzea eta hori Ikastetxeko Urteko Planean sartzea dugu beraz helburu gisa ikasturte honetarako lehen aldiz. Horretarako fase desberdinak jorratuko ditugu eta atal desberdinak garatuko ditugu.

Eskolak bideratuko duen elkarbizitzako plana egiteko eskolako partaide guztiek dute zer esana. Guztiek dutelako elkarrizketarako gaitasuna eta guztien bizi esperientziak, ohiturak, sinesmen eta portaerak baliagarriak direlako elkarren artean adostutako erabakiak hartzeko. Behatokiaren bidez egingo da eta berdintasunean oinarrituko da elkarrizketa.

#### **3.1.-SENTSIBILIZAZIO FASEA.**

Fase honetan estamentu guztiekin eta tresna ezberdinak erabiliz hainbat puntu adostu ditugu denok marko teoriko berdina konpartitzeko :

- Eskolan ematen den elkarbizitzak zerikusirik handia duela ikasleek etxean eta kalean bizi dutenarekin. Testuinguru guztiak loturik daudela, beraz elkarbizitza planaz hitz egiten dugunean hiru testuinguruak koordinatuta egon beharko direla.
- Aurreko testuinguru horien lotura senide eta eskola komunitateko beste eragileen partaidetza zuzena izan behar dute eskolako antolaketa eta funtzionamenduan.
- Bideratuko dugun elkarbizitza honen lan nagusia gatazkak eta arazoak prebenitzen edo aurreikustean datza.
- Elkarbizitzako gaiak bideratzeko, berdintasunean mugituko gara: guraso, ikasle, irakasle eta zerbitzuetako beste pertsonala.
- Arazoen konponketarako eskola komunitateko partaide guztien elkarlana bultzatuko da.
- Gure hezkuntza proiektua kontutan izanda eta oinarritzat hartuta murgilduko gara.
- Eskolak bideratuko duen elkarbizitzako plana egiteko eskolako partaide guztiek dute zer esana, guztiek dutelako elkarrizketarako gaitasuna eta guztien bizi esperientziak, ohiturak, sinesmen eta portaerak baliagarriak direlako, horrela, elkarren artean adostutako erabakiak hartzen ditugu.



### 3.1.1.-Gure definizioa:

*“Bizikidetzaren besteekin bizitzea eta komunikatzea da, berdintasunean, errespetuan, askatasunean eta tolerantzian denak onartuak eta gustura senti daitezten, arazoei aurre egiteko aniztasuna kontuan izanda.”*

## 3.2.-DIAGNOSTIKO FASEA

Fase honek eskolako indar-gune eta ahuleziak detektatzeko balio izan du. Horretarako eskola komunitateko estamentu guztien iritziak kontutan hartu dira, datuak jaso dira eta lehentasunak jarri dira.

### 3.2.1.GURE INDARGUNEAK

1.-**Hezkuntza proiektu global bateratua** izatea. Elkarbizitza plana bat dator gure hezkuntza proiektuak dituen helburuekin, beraz proiektu globalaren metodologiak elkarbizitza on baterako bideak markatzen dizkigu :

- **Garapen sozialari , elkarbizitzari , kooperazioari eta kolektibitateari** dagokionez, gure hezkuntza proiektuak proposatzen diguna bat dator curriculum dekretuan hezkuntza konpetentzien edota oinarritzko konpetentzietan elkarbizitzarekin loturiko alorrekin.
- Eredu hau gela barruan metodologiarekin bermatuta dago, elkar-eragintzak eta kooperazioa bultzatzen dugulako: **talde lana** eginez, gauzatutako prozesuak adieraziz eta norbere ideiak eta estrategiak azalduz eta argudiatuz.
- Gure lehen hezkuntzako programak ziklo osorako dira eta proposatzen ditugun taldekatzeak, **adin nahasketa, lan-taldeak, gelen antolaketa, lan-guneak eta testuinguruak** elkarbizitza ahalbideratzen dute.
- **Materialak anitzak** eta komunak dira.

- **Kritika**, aurreratzeko baliabide modura hartzen dugu ikasleekin ikasgeletan, proiektu globalak horrela markatzen baitu. Auto-balorazioa egin eta bestena jaso, ikuspegi eta iritzi ezberdinak onartuz.
- Daukagun programari ikasle bakoitzak bere **erritmo** eta mailaren arabera heldu diezaioke.

2.-**Partaidetza bultzatzea** senide eta beste eragileei dagokionez:

- Eskola kudeaketan parte hartzen dute: OOG an eta honen batzorde desberdinetan, guraso elkartean, guraso asanbladan eta ikasturte honetan elkarbizitzako behatokian.
- Gurasoen kezka, galdera, proposamen eta ideiei era eraikitzailez erantzuteko joera bultzatzen dugu eta kontutan izaten ditugu.

3.-**Ikasleei** dagokionez elkar laguntzen ikasten dute akademikoki, adin nahasketak ahalbideratuta.

4.-**Irakasleei** dagokionez, eskolako egituren bidez koordinazioa ,talde lana, etengabeko prestakuntza eta abar ordutegi barruan ahalbideratzen da.

5.- **Giro nahiko egokia** dago.

6.- Eskolan ahaleginak egiten dira ahalik eta gatazkarik gutxien izan daitezen eta daudenean erarik baketsuenean konpontzen.

7.- **Komunikazio bideak** gehienetan ondo erabiltzen dira.

8.-**Tutoretza Plana** idatzita dugu, non ikasleak bere burua ezagutu dezala , onar dezala eta sozializazio-prozesua hobetzeko estrategiak lantzen diren.

9.- Espazio desberdinen arautegia **funtzionamendu gidan** idatzita dago eta gurasoei ere arautegia jakinarazten diogu.

10.-**Zuzendaritza taldeak** berrikuntza prozesuak bideratzen ditu.

11.-Senideei kurtso hasierako bileretan azaltzen zaie arautegia eta **gurasoentzako gidan** ere idatziz agertzen da. Arautegi orokor hau urtez urte berraztertzen da eta hala eskatzen duten hobekuntzekin osatzen da.

12.- **Guraso elkarteko** kideek inplikazio maila oso altua dute eskolako martxan eta zuzendaritza talde eta irakasleekin harreman oso ona dute, estamentu hauen arteko kolaborazioa zuzena da. Zuzendaritza taldea eta

guraso elkarteak hilerok batzen dira. Gurasoek hitzaldiak eta formazio saioak antolatzen dituzte familiei zuzendurak.

13.- Kurtso hasieran eta bukaeran zuzendaritza taldea eskola eragile guztiekin bilerak izan ditu, **koordinazioa eta komunikazioa** bultzatuz: sukaldariak, monitoreak, garbitasuneko langileak eta mantenuko langilearekin.

14.-Irakasleak eta zuzendaritza taldea periodikoki biltzen dira udal patronatuko profesionalekin ikasleen **jarraipenak egiteko eta hobekuntzak proposatzeko**, baita ere hezkuntza administrazioko berritzeguneko aholkulariekin edo-eta ikasleekin lan egiten duten beste profesional eta erakundeekin.

### 3.2.2.-GURE AHULEZIAK

- 1.-Eskolaren izana eta zeregina ez dago oso ondo zabalduta herrira, gurasoengana eta irakasle batzuegana.
- 2.-Arauek ez dira lantzen era sistematikoan.
- 3.-Familien partaidetza hobetu behar da gurasoen asanblada eta bileretan.
- 4.-Ikasleen partaidetza ikastetxearen funtzionamenduan bideratu barik dago (IA).
- 5.-Estamentu desberdinetako autokritika eta hausnarketarako zailtasunak agertzen dira(ikasle, irakasle, guraso,zerbitzuetako langileak...) .
- 6.-Ikasleen arteko gatazkak sortzen dira patioetan, pasiloetan eta takiletan.
- 7.- Elkarbizitzaz informazio gehiago eman behar da, bai ikasleei eta bai familiei ere.
- 8.- **AJA** idatziz jaso barik dago.
- 9.-Ez dago zuzendaritza talde egonkor bat proiektuak gidatzeko eta bultzatzeko.

### **3.2.3.HELBURUAK**

**- Helburu orokorrak**

- Elkarrekin bizitzen ikasteko kultura berria sortzen joan ikastetxean.
- Ardura guztiak konpartitzeko hezi, emozioak bideratzen eta erabakiak hartzen ikasi.
- Eskola komunitate osoko partaideen bizitza kalitatea hobetzeko trebetasun sozialak landu.
- Gatazkei aurre egiteko bide desberdinak aurreikusi, barneratu eta erabili.
- Tutoretza saioen antolaketa, bere curriculum, denboralizazioa eta ebaluazioa aztertu.
- Behar bezala komunikatzeko, pertsonen arteko harreman onuragarriak izateko kritikarako ahalmena garatu eta gizartean parte hartzeko beharrezko gaitasunak landu.

#### **-Ikasturte honetan emandako pausuak bizikidetza plana bideratzeko ikastetxean (2011-2012)**

- Batzordeko kideen formazioa areagotu da(zuzendaria eta aholkularia) Gernikako berritzegunean, plana martxan jartzeko.
- Sentsibilizazio formazio saioak bideratu dira irakasleekin bizikidetza definiziora heltzeko eta helburuak finkatzeko.
- Behatokia sortu da.
- Behatokiko partaideekin formazio saioak definizioa eta helburuak finkatu dira.
- Behatokian hausnarketa egiten hasi gara gatazka eta araei buruz.
- Definizio bateratua atera dugu.
- Ikasleengana 3. hiruhilabetean jo dugu sentsibilizazioa eta diagnostikorako datuak jasoz.

### 3.3.PLANIFIKAZIO FASEA ZIKLOKA:

NOIZ	HH	1.ZIKLOA	2. ZIKLOA	3.ZIKLOA
1.- <b>Tutoretza saioak</b>	.Saio kolektiboak erabili .Jolas sinbolikoa aprobetxatu	Motxil Proiektua garatu. -Sentsibilizazio saioak antolatu bizikidetzari buruz.	Osasunkume programa garatu. --- Sentsibilizazio saioak antolatu bizikidetzari buruz.	Prebentzio mailako gaiak: bulliying-ciberbulliying, drogomenpeko tasun arriskuak... Hezkidetzaren programak garatu. Sentsibilizazio saioak antolatu
2.- <b>Heziketa fisikoko orduetan</b>	Jolas kooperatiboa (4-5 urte)ko programa	Jolas kooperatiboa 1.zikloko programa	Jolas kooperatiboa, 2. zikloko programa	Jolas kooperatiboa, 3. zikloko programa
3.- <b>Jantokiko orduetan</b>	Jantokiko araudia era sistematikoan landu ikasleekin.	Jantokiko araudia era sistematikoan landu. Elkarren arteko ohiturak landu jantokian eta patioetan	Jantokiko araudia era sistematikoan landu. Txikiagoei lagundu jaten eta patioetan	Jantokiko araudia era sistematikoan landu.  Txikiagoei lagundu jaten eta patioetan
4.- <b>Ohizko geletan, patio eta pasiloetan</b>	Gelako araudia, pasilo eta patioetako arauak funtzionamendu gida erabiliz era sistematikoan landu. Txokoetako lanetan elkarrekin lanean aritzeko estrategiak	Gelako araudia, pasilo eta patioetako arauak funtzionamendu gida era biliz era sistematikoan landu. Txokoetako lanetan elkarrekin lanean aritzeko estrategiak	Gelako araudia, pasilo eta patioetako arauak funtzionamendu gida erabiliz era sistematikoan landu. Txokoetako lanetan elkarrekin lanean aritzeko estrategiak	Gelako araudia, pasilo eta patioetako arauak funtzionamendu gida erabiliz era sistematikoan landu. Txokoetako lanetan elkarrekin lanean aritzeko estrategiak landu, printzipio

	landu, printzipio metodologikoa k kontutan izanda	landu, printzipio metodologikoa k kontutan izanda	landu, printzipio metodologikoa k kontutan izanda	metodologikoa k kontutan izanda
5.- <b>Gurasoei informazioa bileretan</b>	Kurtso hasierako bileretan eta gidan. Tutoreekin daudenean . Zuzendaritzatik	Kurtso hasierako bileretan eta gidan. Tutoreekin daudenean. Zuzendaritzatik	Kurtso hasierako bileretan eta gidan. Tutoreekin daudenean. Zuzendaritzatik	Kurtso hasierako bileretan eta gidan. Tutoreekin daudenean. Zuzendaritzatik

### 3.3.PLANAREN JARDUERAK OROKORREAN:

<b>1.-Tutoretza saioak indartu</b>	<b>2.-Jolas kooperatiboa garatu</b> Heziketa fisikoko klaseetan HHTik hasita 3. ziklo-arte	<b>3.- Arautegia/ AJA idatzi eta funtzionamendu eta familien gidan berrikusi,</b>	<b>4.-Programa desberdinak garatu:</b> Motxil proiektua /Lagunekin Baratzean... programa garatu, osasunkume, kontsumo tailerrak..., hitzaldiak gai bati buruz...
-Taldearen kohesioa bilatu. -Ikasle bakoitza hartu, ezagutu. -Arazoei irtenbideak bideratu, aurre egin. -Ikasleen eskaerak, kexak bideratu. -Ikastetxean eta lagun taldean ondo integratzen laguntzea. -Ikastetxeko jardueretan ikasleek parte har dezatela bultzatzea. -Ados-tokiak sortu eta erabili.	.Elkarrekin bizitzeko jarduerak proposatzen dira. Jolasaren bitartez elkar ezagutu, onartu..., bazterkeria gainditzeko proposamenak landu, ikasleen arteko errespetua eta enpatia indartzeko ekintzak.	AJA eta elkarbizitzaren artean lotura landu. AJA idatzi. Arautegia berrikusi eta funtzionamendu gidan idatzi eta geletan patioetan eta jantokian landu.	Lehen zikloan adimen emozionalari buruzko programak. Bigarren zikloan Elikadura, osasuna... Transbertsalitatea lantzeko programa Kontsumo tailerrak Agenda 21 eta erosketan berdea rekin lotuta. Udalak eskainitako programak.

### 3.4.-JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Planifikazioaren jarraipena egiteko zer egin den, nola egin den, zer hobetu behar den eta nola aztertuko dira.

Helburuen lorpen maila baloratuko da Ikastetxeko Urteko Planaren barruan, urtero-urtero jarduerak aukeratuz.

Bizikidetza behatokiaren funtzioak:

- 1.-Elkarbizitza Plana bultzatu eta ebaluatuko du.
- 2.- Hezkuntza komunitate guztiari harreman positiboak sustatzen laguntzeko, ekimenak proposatuko ditu (globalean ikastetxe osorako)
- 3.- Ikastetxearen elkarbizitza-arauak (AIA) aztertuko du, diagnostikoa egingo du eta hobetzeko neurriak proposatuko ditu.
- 4.- Gatazkak era positiboan ulertzeko iradokizunak eta proposamenak jaso eta martxan jarriko ditu
- 5.- Lan-plana egingo du, jarraipena egin eta ebaluatuko du.

Partaideak:

- Zuzendaritza taldea
- 2 Irakasleak ( 1 Kontsultorea)
- AZPren ordezkari bat
- 4 guraso

Bileren maiztasuna:

- Ikasturtea hasieran bizikidetza plana martxan jarri arte, hilero. Kurtsoaren zehar eta amaieran.
- Behar izanen arabera.
- Urteko planaren barruan (IUP), urtero, planarekin batera.

Bermeon, 2012ko Ekainean